

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

55/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, zeinaren bidez eskatzen baita presaz burutu daitezela Zadorra ibaira egiten den etengabeko lindano-isurketa konpontzeko egin beharreko ekintzak

Arabako Batzar Nagusiek, 2018ko uztailaren 11n egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

55/2018 Mozioa, uztailaren 11koa, zeinaren bidez eskatzen baita presaz burutu daitezela Zadorra ibaira egiten den etengabeko lindano-isurketa konpontzeko egin beharreko ekintzak.

1. Arabako Batzar Nagusiek Vitoria-Gasteizko Udalarari eskatzen diote lizitatu, esleitu eta hasi ditzala (Gardelegiko zabortegiko eta bertako araztegiaren behealdeko gunekutsatua inpermeabilizatzea eta zigilatzea) 2018. Urtea bukatu aurretik, konponbidea emateko Arabako lurraldeari eragiten dion ingurumeneko eta osasun publikoko arazo honi. Halaber, Arabako Foru Aldundiari eskatzen dio Vitoria-Gasteizko udalarekin lankidetzan aritu dadila aurreikusitako lanak finantzatzeko.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote aurkeztu dezala hiru hilabeteko epean "Trasponde inguruan Zadorra ibaiko lohi kutsatuak mugarrizko eta deuseztatzeko azterlana", bai eta ingurumen-arazo hau konpontzeko lanen exekuziorako proposamen bat eta kronograma bat.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari, Vitoria-Gasteizko Udalarari eta Eusko Jaurlaritzari eskatzen diete ezen, nor bere eskumenen esparruan, abian jarri ditzatela modu koordinatuan gure lurraldean lindano-kutsadurari aurre egiteko mekanismo efektiboak, bai eta lan egin dezatela deskutsatzearen inguruko ezagutzak lortzeko eta trukatzeko, eta behar den finantzazioa bermatu dezatela.

4. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote behar bezala lokalizatu eta ezaugarritu daitezela lindanoa bota den leku guztiak, eta bermatu dadila osorik garbituko direla kutsatutako inguru guztiak; halaber eskatzen dio ebaluatu dadila gai hauekin kutsatutako inguruetakoz biztanleek izandako esposizioa eta zehaztu daitezela maila penalean, politikoan edo administratiboan kutsaduraren erantzuleei dagozkien ardurak.

5. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote kutsagai iraunkorrek kaltetutako gunek gizakiaren kontsumorako edo ureztapenerako ekoizpeneko ura hartzeko desegokitzat jo ditzala.

6. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote bermatu daitezela gardentasuna eta etengabeko informazioa bai eta egoera honen jarraipenean eta konponbidean interesa duten antolakunde ekologisten eta sozialen, auzo-elkarteen eta norbanakoen parte-hartzea.

7. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezen, harik eta Gardelegiko kutsadura-fokoa konpondu arte, ugaritu daitezela Kripiñako araztegiaren lohien analisiak, eta aldi baterako debekatu dadila bere erabilera, lindanoa antzemanaz gero.

8. Arabako Batzar Nagusiek Eusko Jaurlaritzari eskatzen diote ezarri ditzala plan hidrologikoetan lehenetsitako gai arriskutsuak deuseztatzeko jaso beharreko ekintza-planak; kasu honetan HCH azaltzen den guneeetan kentzeko, hala agintzen duelako Uraren Esparru Zuzentarauak (2013/39 Zuzentaria), eta egin dezala 2018 bukatu aurretik, aldi horretan Europako Batzordeak berriuspena amaitu baitu, eta eskatu diezaiola Espainiako Estatuari gauza bera egiteko.

9. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote ezarri dezala, URA Uraren Euskal Agentziarekin lankidetzan arituz, etengabeko zaintza eta kontrola mozio honetan hartutako erabakiak bete daitezzen. Aldian-aldian mozio honen garapenaren berri emango du Batzar Nagusi hauetan.

10. Mozio hau bidaliko zaie Vitoria-Gasteizko Udalari, URA Uraren Euskal Agentziari, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Sailari eta Eusko Jaurlaritzari.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko uztailearen 11

Presidentea

PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA